

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Konsuelo Zabaleta Galarraga

*Errenteria,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Errenteriako Miguel Alduntzin kaleko (Goiko Kaleko) laugarreneko lehenengo pisuan jaio zen. Ama, Monika Galarraga, Errenteriako Eliz kalean jaioa zen eta aita, berriz, Santa Klara kalean. Aita Juan Zabaleta bertsolaria zen eta anaia ere bertsolaria zuen: Zabaleta anaiak ziren. Aita bertsolaria izaki, senideen artean kantatzeko ohitura zuten Konsueloren etxean. Aitak Fabril artile-fabrikan egiten zuen lan eta tindatzailea zen; Goiko Kaleko jaietarako tinteak eramaten zituen eta paper-fabrikako paperak tindatuta, banderatzoz betetzen zuten kalea. Konsuelo Gurutzeko Alabak kongregazioko lekaimea da. Hondarribian egin zuen nobiziatua eta ordutik irakaskuntzan aritu da. Hasierako urteetan Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herritan klaseak ematen eta kongregazioaren eskoletan zebiltzan irakasleei euskarako klaseak ematen hasi zen. Hogeita hamar urte daramatza Errenteriako San Jose ikastetxean lanean, irakasle lanak egin izan ditu eta baita zuzendari lanak ere.

Zintak

ERR-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-03-10
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Moja sartzeko erabakia eta ordutik izandako bizimodua

- **Erref:** ERR-004/002

- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gaztetan moja izatea erabaki zuen eta nobiziatua egin zuen. Hainbat herritan egon izan da irakasle eta zer gai eman izan dituen aipatzen du.

2. Euskara irakaskuntzan sartzen

- **Erref:** ERR-004/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

1976an euskarako titulazioa atera zuen Bilbon, euskarako klaseak eman ahal izateko. Errenteriako San Jose ikastetxean eskolak ematen hasi zenean, hiru apaizek ematen zuten euskaraz. Konsuelok bultzatu zuen irakasle guztiek euskara ikastea; Konsuelo bera euskara irakasten aritu zen. Donostiako Santo Tomas Lizeoan irakasle izateko eskaini zioten, baina Errenterian gelditu zen Konsuelo.

3. Euskarako titulazioa atera zuenean, euskarako irakasle aritu zen

- **Erref:** ERR-004/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

1973an hasi zen euskara ikasten Bilboko hizkuntza-eskolan. Horrela, euskarako titulazioa lortu zuen eta Irunera etorri zen; orduan, eskolatako irakasleei euskara irakasten aritu zen. Klase haietan zer erakusten zuen azaltzen du.

4. Euskara fintzera Bilboko hizkuntza-eskolara

- **Erref:** ERR-004/007
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara beti hitz egin izan du, etxetik jaso baitzuen. Gazte zela, ordea, euskara zabartuta zeukala iruditzen zitzaion eta Bilboko hizkuntza-eskolara joan zen hura fintzera.

5. Aita eta osaba zituen "Zabaleta anaiak"

- **Erref:** ERR-004/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aita bertsolaria zuen, eta uste du haren aitarengandik jaso zuela bertsotarako zaletasuna. Aita eta bere anaia ezagunak ziren: "Zabaleta anaiak", hain zuzen ere; bien estiloak alderatzen ditu. Aita etxean eta Goiko Kaleko jaietan bertsotan aritzen zen.

6. San Agustin egunerako ilusioa

- **Erref:** ERR-004/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Agustin egunean izaten ziren Goiko Kaleko jaiak. Umetan asko gustatzen zitzaizkien jai haiek: antolatu egiten zituzten, kalea garbitzen zuten erratzarekin, ikurrinaz betetzen zituzten kaleak... Ikurrinak nola prestatzen zituzten azaltzen du.</p>

7. Otorduetako ardoa eta sagardoa

- **Erref:** ERR-004/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:17:12. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehen ardoa edaten zen bazkaritan eta sagardoa afaritan. Ardoa erosteko Kattalinen dendara joaten ziren. Umetan beraiek ere edaten zuten ardoa eta sagardoa, baina urarekin nahastuta.

8. Ama odol-emailea zen

- **Erref:** ERR-004/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Beraien familian O- odolekoak dira, odol-emaile unibertsalak alegia. Konsueloren ama odol-emailea izan zen. Lehen oso gauza berezia zen odola ematea.

9. Etxetik jaso zuen erlijioarekiko maitasuna

- **Erref:** ERR-004/015
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erlijioarekiko maitasuna etxetik jaso zuen Konsuelok; gerora, bere kabuz hartu zuen moja sartzeko erabakia. Ama oso fededuna zen.

10. Goiko kalea lehen

- **Erref:** ERR-004/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:23:13. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta sorra
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Konsueloren haurtzaroan Goiko Kalea nolakoa zen azaltzen du. Arrosario-fabrikaren jabeak ziren beraiek eta baratze bat ere bazeukaten.

11. Gurasoen lana

- **Erref:** ERR-004/018
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehen baratzea zeukaten beraiek eta ondoko baratzea Xabier Leteren aitarena zen. Baratzea lantzeko etxetik kanpoko norbait hartzen zuten. Aita tindatzailea zen eta oso marrazki interesgarriak egiten zituen. Amak tela-fabrika egiten zuen lan, eta orduan erabiltzen zuten arropa oraindik gordeta dauka Konsuelok.

12. Aita tindatzailea zen

- **Erref:** ERR-004/019
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aita tindatzailea zen eta kolore asko erabiltzen zituen horretarako. Konsuelok 12 urte zituela hil zen aita bat-batean, eta lanean bera ordezkatzeko bi ingeniari ekarri zituzten.

13. Umetako planak

- **Erref:** ERR-004/020
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Umea zela, sokasaltoan eta kanikatan ibiltzen ziren gehienbat. Batzuetan mendira eta inguruko herrietara joaten ziren. Zinera askotan joaten ziren.

14. Koldo Mitxelena asko ezagututakoa

- **Erref:** ERR-004/021
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:33:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Koldo Mitxelena eta haren familia asko ezagutu zuen Konsuelok. Koldok

hizkuntza aztertzeko erabiltzen zuen metodologiari buruz hitz egiten du.
Oiarzungo eta Errenteriako euskara alderatzen ditu.

15. 'Xenpelar'ren bertsoak

- **Erref:** ERR-004/024
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:38:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Amak ez zuen ezagutu Xenpelar, baina bai haren bertsoak.
Bertso batzuk abesten ditu.</p>

16. Juan Zabaletaren, bere aitaren, bertsoak

- **Erref:** ERR-004/025
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:39:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aitak egindako bertso bat abesten du.

17. Aitaren bizimodua eta dohainak

- **Erref:** ERR-004/028
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Egun berezietan aitarekin bazkalostean abesten zuten normalean. Aitaren laneko ordutegia nola izaten zen azaltzen du. Asko gustatzen zitzaion margolanak egitea.</p>

18. Lehengo Madalenak eta Gabonak

- **Erref:** ERR-004/029
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:48:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Lehen Madalenak oso desberdinak ziren oraingoan aldean: dantza asko izaten zen Zumardian eta txistulariak egoten ziren. Gabonetan ere jaiotzarekin ateratzen ziren abesten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com